



2019 URTEKO KIROL EKINTZAK ETA JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRU LAGUNTZEN ARAUTEGIA

1.- ESKUMENA

Arautegi hau Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzen dituen Legearen 4.1 b) eta 25. artikulua ematen dituen eskumenei jarraituz eta Korporazio Lokaleko Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluen eta ondorengo arabera onartzen da.

2.- HELBURUA

Deialdi honen helburua hau da: Orioko irabazi asmorik gabeko kirol elkarteek 2019an edota 2018-2019 denboraldian egingo dituzten jarduerak eta egitasmoak diruz laguntzeko Udalak erabiliko dituen irizpideak finkatzea eta prozedura zehaztea.

3.- LAGUNDUKO DIREN JARDUERA MOTAK

Diru laguntzak ondorengo jardueretarako eskatu ahal izango dira:

- a) Orioko kirol taldeen OHIKO jarduerak.
- b) Orion burutu nahi diren EZOHIKO edo aldian behingo jarduerak. Ezohikoak edo aldian behingoak diren ala ez dagokion udal batzordeak erabakiko du, aholku batzordeak proposatuta.

4.- FINANTZAZIOA

Emango diren diru kopuruak 2019ko aurrekontuaren arabera izango dira.

5.- IRIZPIDE OROKORRAK

- 1. Diru laguntza hauen azken helburua dirurik irabazteko asmorik gabeko kirol zerbitzuak bultzatzea da.
- 2. Diru laguntza hauek beste batzuekin bateragarriak dira, baina aldez aurretik adierazi behar da jarduerak horietarako beste erakunderen bati diru laguntza eskatu zaion ala ez. Edozein kasutan, diru laguntza guztiak batuta jasotako kopurua ez da inoiz izango gastuen % 100 baino gehiagokoa.

6.- ESKATZAILEAK

Udalaren diru laguntza eskatu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte elkarteek:

- a) Elkarte eskatzaileek, euskarari dagokionez, udal ordenantzetan zehaztutakoa bete beharko dute.



ORIOKoudala



- b) Elkartearen aurrekontuan aurreikusitako gastuen % 50, gutxienez, Udalaren diru laguntza ez den beste bideren batetik estali beharko dute elkarteek.
- c) Indarrean dagoen legediaren arabera osatuta egon behar dute, eta Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundeen erregistroan errolatuta.
- d) Identifikazio Fiskalerako Kodea izan behar dute eta zerga betebeharretan egunean egon.
- e) Elkartearen egoitza Orion izan behar dute.
- f) Udalaren lokalen bat erabiltzen duten elkarteek, Udalarekin hitzartutako erabilera arauak zorrotz bete beharko dituzte.
- g) Eskola kirolari buruz Gipuzkoan indarrean dagoen araudia bete beharko dute.

Diru laguntza hauen onuradun izaera lortzeko betebeharrak azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan xedatutakoak izango dira.

7.- ESKAEREN AURKEZPENA

Eskaera egiteko, eranskinean jasotako eskaera orria bete behar da. Egitasmo edo jardueraren arduradunak **eskaera orri ofizialaren atal guztiak** bete beharko ditu eta Udaleko erregistroan aurkeztu.

Diru laguntzak eskatzeko azken eguna **2019ko martxoaren 22a** izango da. Ezohikoen epea ekintza ospatu baino hilabete lehenago amaituko da, hala ere urte hasieran zehaztea badago hala egingo da.

Eskaera orri ofizialaz gain, elkarteak aurkez ditzake bere jarduerari buruzko agiri osagarriak.

Diru laguntza lehendabiziko aldiz eskatzen dutenek, eskaera orri ofizialaz gain, ondoko agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Eusko Jaurlaritzako kirol elkarte edo erakundeen erregistroan errolatuta daudela ziurtatzen duen agiria.
- Elkartearen estatutuak.
- Arduradun(ar)en nortasun agiriaren fotokopia.
- Identifikazio Fiskalerako Kodearen fotokopia.

EZOHIKO KIROL JARDUERETARAKO DIRU LAGUNTZA ESKATZEN DUTENAK

- Probaren historia edo nondik norakoak
- Txosten teknikoa, jardueraren antolaketaren zehaztasunak emateko.
- Parte-hartzaile kopurua.
- Jarduerak noiz eta non izango diren.
- Antolaketarako behar diren material eta giza baliabideak:



ORIOKoudala



- Jarduera antolatuko duen pertsona edo taldearen identifikazioa.

- Txosten ekonomikoa, jardueraren gastuak eta sarrerak zehaztuta
- Erantzukizun zibil eta istripuetarako aseguruaren kopia.

Eskaera egindakoan, agiriren bat falta bada, 15 eguneko epea izango du elkarteak aurkezteko, eta behin epe hori amaitutakoan, falta dena osatu ez bada, artxibatu egingo da eskaera.

Aurreko urteren batean eskaera egindako elkarte batek aldaketaren bat izan badu (estatutuetan, Identifikazio Fiskaleko Kodean eta abar), aldaketari dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu.

8.- DIRU LAGUNTZAK EMATEKO EBALUAZIOA ETA IRIZPIDEAK

Aholku batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak, eta berak diktaminatuko ditu lehentasunak eta eman beharreko zenbatekoak. Ondoren, behin betiko erabakia Kirola Batzordean hartzeko.

Diru laguntzak emateko baloratuko diren puntuak hauek dira:

OHIKO TALDE KIROLETAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

- Elkartearen FORMAKUNTZA ADINETAKO (12-19) urte bitarteko lan talde kopurua
- Elkartearen 18 urtetik gorako talde kopurua

OHIKO BANAKAKO KIROLLEN JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

- * Elkartearen partaide kopurua
- * Antolatzen diren ekintzak
- * Aurrekontua
- * Formakuntza egiten den edo ez.
- * Gizarte integrazio lana egiten den edo ez.
- * Udala edo herriarekin duen kolaborazioa

EZOHIKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

- Jardueraren helburuak eta izaera:
 - Herritarrentzat izatea eta aurkeztutako egitasmoa herritarrei zabaltzea.
 - Kolektibo berezientzako jarduerak izatea edo horien parte-hartzea bideratzea: 3. adina, haurrak, ezindak, etorkinak eta, orokorrean, kirol ekintzetatik aparte egon ohi diren kolektiboak...
 - Partehartzaileen kopurua, iraupena, jardueraren esparrua eta zabalkundea.
 - Jardueraren finantzatze maila



- Jarduera antolatzeko azpiegitura eta giza baliabideak
- Jardueraren lehia maila

Proposatzen den diru laguntzaren kopuruak ez du programaren aurrekontuaren % 50 gaindituko.

9.- DIRU LAGUNTZEN ORDAINKETA

Diru laguntza bi epetan ordainduko da. Dirulaguntza onartzerakoan %75a, ondoren diru zuriketa aurkezten denean (abenduaren 31a baino lehen) beste %25a ordainduko da. Dirulaguntza onartzeko eskaera orri ofiziala eta aurreko urteko gastuen justifikanteak aurkeztu beharko dira. Aurreko urteko diru laguntzetako diru guztia behar izan ez bada udalari bueltatu egin beharko zaio.

Ezohiko kasuetan ekintza amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan aurkeztu beharko dira gastu guztien justifikanteak eta balantzea.

10.- PUBLIZITATEA

Diruz lagundutako jardueren publizitatea euskaraz egingo da; ele bitan ere egin ahal izango da, beti ere euskarari lehentasuna emanez. Oriko Udalaren laguntza nahitaez adierazi beharko da.

11.- BALDINTZAK EZ BETETZEA

Oinarriotan jarritako baldintzak betetzen ez badira, diru laguntza emateari utzi egingo zaio, eta halakoetan, gainera, azken urtean jasotako diru guztia itzuli egin beharko du elkarteak.

12.- INTERPRETAZIOA

Oinarriaren interpretazioan edo ezarpenean sor litezkeen zalantzak aholku batzordeak tratatuko ditu, ondoren udal batzordeak erabakiko du